



**Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia**

**Berrikuntza eta Ekonomi
Sustapen Saila
Departamento de Innovación
y Promoción Económica**

“EGIN ETA EKIN”

PROGRAMA PILOTUA 2008 - 2009



2008
berrikuntza urtea
euskadi
año de la innovación

Egin eta Ekin

Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak 2008. urtean abiarazi zuen “Egin eta Ekin” programa. Kultura ekintzailearen eremuko programa bat da, DBHko eta Batxilergoko ikasleei zuzenduta dagoena. Horren xedea da gaztarotik ekimen ekintzaileak sustatzea, kultur aldaketa bat eraginez zentroetan ematen den hezkuntzaren bidez.

Egin eta Ekin Eusko Jaurlaritzak 2007-2010 aldirako hezkuntza arloko berrikuntzarako ezarri dituen ildo estrategikoetan kokatuta dagoen proiektu bat da; ildo horien helburua da gure gizartean Berrikuntza eta Ekintzailera areagotzeko gaitasunak eta abileziak sustatzea.

Proiektu honekin ikasleek beraien eguneroko bizitzan erabili behar dituzten, eta, aldi berean, lan munduan eskatzen diren baloreetan funtsezkoak diren gaitasunak eskuratzea lortu nahi da.

Helburu orokorra

Egiten ikastea eta ekitea, erabakiak hartzeko eta erantzukizunak bereganatzeko ekimena izanik, ahalegina eta zailtasunei aurre egiteko ahalmena baloratuz eta bizitzako eremu ezberdinetan ekimen ekintzaileak gauzatuz.

Programaren edukia

- Pertsonen ezaugarriak garatzeko tailerrak, zentroko irakasleen eta kanpoko langile espezializatuen ardurapean

Kudeaketarako gaitasunak	Gaitasun sozialak	Gaitasun pertsonalak	Enpresa-gaitasunak
Arazoen ebazpena	Rolak eta aitzindaritza	Pentsamendu kritikoa	Proaktibitatea
Erabakiak hartzea	Taldean lan egitea	Autokonfiantza	Arriskuak ebaluatzea eta arriskatzea
Plangintza	Komunikazioa	Ahalegina, konstantzia, konpromisoa	Sormena

- Enpresa arloko printzipioak ikasteko tailerrak, zentroko irakasleen eta kanpoko langile espezializatuen ardurapean
- Bisitak enpresetara
- Hitzaldi-solasaldiak enpresetako pertsonekin
- Ikastaroan zehar negozio proiektu/plan bat garatzea
- Zentroen arteko lehiaketa batean parte hartzea ikastaroaren amaieran.